



HIRUKAren hainbat gako eskaintzen dizkizuegu; eta proiektua bultzatzeko aukerak ere bai ▶ 22

Bertsolari txapelketaz eta bestez berba egin dugu Paiagaz; txapela Uribe Kostara ekartzeagatik zoriendu ostean ▶ 16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



1. zenbakia

2015eko
urtarrilaren 22tik
urtarrilaren 28ra

Olatua gaindituz!

Aurrerantzean, HIRUKAgaz hartuko dugu olatua. Astero esku artean duzun aldizkariaren bitartez, eta egunero sareko itsasoan. Murgil zaitezte!



Txoritokitik

IÑAKI ZARRAGOIA ZABALA
Getxoko alkate ohia

Bizarra Lepoan eta UK gogoan

Aspaldian izan zen, ni alkate nintzen garaian, 2000. urte inguruan. Aditzez bai baina bestela ezagutzen ez nuen Jokin Aspuru Bizarra Lepoan taldearen izenean bilera eskatu zidan. Jakina, beste askotan gertatzen zen bezala, beren egitasmoa aurkeztera eta, bide batez, dirua eskatzera etorri zitzaizkidan.

Alkatetzara heldu nintzenean euskara indartu eta euskararen egitasmoak bultzatu behar genituela argi neukan, halaxe azaldu genuen gure egitasmoan eta hura betetzeko erabateko erabakia hartuta genuen taldean. Horregatik erraza gertatu zitzaizkidan Jokinen asmoa ulertzea, berarekin bat etortzea, eta agian berak ere espero ez zuen diru laguntza garrantzitsua eskaintzea.

Gero beste hainbat ekintza burutu genuen, euskara sailaren egitura egokia ezarri genuen eta jendea kontratatu genuen. Eta suertea izugarria izan genuen Joxi Arakamak Udalaren deialdiari erantzun eta gurenagana etorri zenean. Jokin eta Joxi, bi pertsona garrantzizkoak.

Ez dakit esaten jendearen iritziz zein ote den alkate nintzela Udalaren ekintzarik onena. Badakit, ordea, zein dudan maiteena: euskarari eman genion bultzada. Suertea izan nuen euskara zinegotzi birekin: Koldo Iturbe eta Imanol Landa.

Bizitzan aurrera begiratu behar da eta bere garaian balio izan duten asmoak berriztatu eta sendotu behar dira. Kontatutakoa iragana da, Bizarra Lepoan aldizkaria UK bihurtu zen eta orain UK joan zaigu. Baina bi hauek izan zirelako da orain HIRUKA. Ongi etorria! ◀

Getxo

Iraupen eski ikastaroa egingo du Egizuk

Urtero legez, Egizu Getxo euskaldun! taldeak iraupen eski ikastaroa egingo du Aragoiko Pirinioetako Somport estazioan, martxoaren 6tik 8ra bitartean. Berbalagunek eta Bizarra Lepoaneko bazkideek 110 euro oraindu beharko dituzte eta 140 euro besteek. Lehen umeak, berriz, 105 edo 82,5 (bazkideek eta gurasolagunen seme-alabek) euro pagatuko ditu. Bigarrenak 70 edo 55 euro. Eta hirugarrenak ezertxo ere ez.

info +: 644 277 155 / egizugetxo@gmail.com

Euskararen erabilera sustatzen laguntzeko 90.000 euro

Udalak 90.400 euro bideratuko ditu euskararen jakite-maila sustatzeko eta erabilera-maila areagotzeko. Horietatik, 86.400 euro euskara ikasi gura duten norbanakoei zuzenduta egongo dira, eta beste 4.000 euro enpresei emango zaizkie, euskara sustatzeko helburuagaz. 80.000 euro euskara ikasi nahi duten baina baliabide ekonomikorik ez dutenentzat izango dira. Kasu horietan, eskaerak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da, eta diru-laguntza matrikularen kostuaren %80 izatera heldu ahal izango da. Bestalde, 4.400 euro onartu dituzte gidabaimena euskaraz ateratzen duten gazteentzat; 1.000 euro elkarteetako aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako; eta beste 1.000 euro Udaleko eta erakunde autonomoetako langileek euskara ikasteko. Azkenik, merkataritza eta ostalaritza sektorean euskara sustatzeko 4.000 euroko diru-laguntza errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko bideratuko dira. Kasu hauetan, abenduaren 31ra arte egongo da epea eskaera egiteko. ◀



Getxophotoko erakusketa bat, ekimen horrek ere laguntza jaso zuen

Udalak 104.000 euro bideratuko ditu elkarte kulturaleri laguntzeko

Diru-kopuru hori iaz bideratu zuen berdina da. Interesatutako elkarteek otsailaren 8ra arte izango dute eskaera egiteko epea

Laguntza honen helburua kultur arloko elkarte getxoztarrak laguntzea da, egunerokotasunean funtzionatzeko dituzten gastu arruntak finantzatu ahal izateko eta 2015eko programaziorako jarduerak aurrera eramane ahal izateko. Izan ere, talde hauen gehiengo handi bat txikiak dira, langilerik gabekoak eta boluntarioei esker funtzionatzen dutenak.

Deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko epea otsailaren 8ra arte luzatu dute, eta horiek jasotzeko honako baldintzak bete beharko dira: Getxoko udalerrian helbide soziala izatea edo Getxon egotea, elkarte baten izaera edukitzea eta kultur jarduerak bat garatu nahi izatea, besteak beste.

Iaz, Getxoko Udalak 104.000 euro banatu zituen 24 elkarteren artean;

eta horrez gainera, 100.000 euroko diru-laguntza eskaini zion Begihandi Kultur Elkarteari, Getxophoto argazki jaialdia antolatzeke; 24.000 euroko laguntza Utopian Getxoko Antzerki Eskolari amateur sailean arautu gabeko antzerki eskolak emateko; eta beste

**Bete beharreko dokumentazioa
getxo.net webgunean
dago eskuragarri**

12.800 euro Alday Elkarte-Patronatuari elkarte kide direnei bertoko lokalak eta gelak erabiltzen utzi diezaizkien elkarte edo taldeei.

Diru-laguntza hauek jaso ahal izateko bete beharreko dokumentazioa www.getxo.net webgunean dago eskuragarri. Eskaerak, berriz, Villamonteko kultur etxean zein Herriarren Arretarako Bulegoetan entregatu ahal izango dira, otsailaren 8a baino lehen. ◀



**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Teléfono 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxo

“Gai garena erakusteko aukera izan da”

Endika Aguilar, Unai Sainz eta Aritz Landeta gazteek irabazi dute Kalabazan Kultur Ekimenak taldeak antolatutako lehenengo Book Trailer txapelketa



Endika Aguilar, Unai Sainz eta Aritz Landeta

Urtarrilaren 11n izan zen sari banaketa eta aipatu hiru gazteen *Kale Gorrian* lanak lortu zuen lehenengo saria: abentura kamera bana partaide bakoitzeko. “Book trailer”-ak liburu bat ezagutarazteko egiten diren bideo laburrak dira, horiek zabaltzeko eta irakurleak erakartzeko asmoagaz.

Robert Swindells idazlearen *Kale Gorrian* liburuan oinarritu zarete lehiaketan parte hartzeko, zer dela eta?

Lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintzetako bat zerrenda batean zeuden liburuaren book trailerra egitea zen. Bertan, *Kale Gorrian* tituluak arreta eman zigun lehenengo momentutik, klaserako irakurri genuen duela urtebete, eta momentuan jakin genuen liburu egokiena zela trailer formatura pasatzeko.

Zer erakusten duzue bideo horretan?

Bideoan Link pertsonaiaren istorioa aurkezten dugu: etxetik alde egiten

du, kale gorrian bizitzera behartuta. Era berean, Shelter pertsonaiak kale gorrian bizi diren pertsona guztiak akabatu nahi ditu. Hala, Link-en bizitza oztopatzen du. Azkenengo klipean agerian utzi dugu Link hiltzeko zorian dagoela, eta bertan amaitzen da bideoa. Lehenengo momentutik gure ideia zen ikuslea intrigaz uztea traile-raren amaieragaz. Hala, jakinminez, ikuslea liburuak irakurtzera behartu nahi izan dugu.

Liburuko Londoneko kaleak Algortan irudikatu dituzue, baita pertsonaia nagusiak ere. Zaila izan zaizue liburu bideo formatura pasatzea?

Egia esanda ez da oso zaila izan. Izan ere, istorioa ez da azaltzen leku ospetsu edo ezagun batean, eta horrek aukera eman digu udalerriko kale eta parke askotan grabatzeko, gure lana hasi baino lehen genituen ideiei oztoporik jarri gabe.

Zerk animatu zintuzten Book Trailer

lehiaketa honetan parte hartzera?

Oso aukera polita zelako gustatzen zaiguna egiteko, gure ahalmena frogan jartzeko eta, nola ez, sariak.

Zelako esperientzia izan da?

Esperientzia primerakoa izan da. Oso lanpetuta ibili gara aste horietan denetan, baina oso ondo pasatu dugu lan hau prestatzen.

Zenbat denbora eman duzue bideo hau egiten?

Kontuan izanda bideoaren hasierako time-lapsea, ezabatutako eszenak eta balio izan ez duten klipak, renderak, etab. 10 bat ordu eman ditugu, hilabete oso batean zatituta.

Zenbat bideok parte hartu zuten lehiaketa honetan?

Guztira, 34 bideok parte hartu genuen lehiaketan, baina gu izan ginen nagusienetarikoa eta horrek erraztasuna eman zigun bideoa lau haizetara zabaltzeko. ◀

PPk kultur eraikin bat nahi du Neguriko geltoki zaharrean

Getxoko PPk Neguriko tren geltokiko eraikin zaharraren “bazterkeria” salatu du. Horrez gain, popularrek proiektu bat aurkeztu dute eraikinari erabilera bat emateko. Euren aburuz, aisialdirako eraikin bat sor daiteke bertan, “ia erreformarik burutu gabe”. PPkoen arabera, beheko solairuan komun publikoak eta irakurtzeko eta ordenadoreakaz jarduteko erabilera anitzeko eremu bat jar daiteke, eta lehenengo solairuan, berriz, erabilera anitzeko beste eremu bat, “ikasteko edota bilerak egiteko”. Tren geltoki zaharraren ingurua ere eraberritzea proposatu dute popularrek, “kanpoko plaza berreskuratzeko”. ◀

Tosu landako gazteek argi utzi nahi dute: “irabaztera goaz!”

Ibarbengoa metro geltoki ondoko Tosu landak bizirik dirau. Lekua negurako atondu eta gero, gazteak bueltan dira “irabazteko prest”. Hala, urtarrilaren 24an, zapatua, neguko topaketa egingo dute herriko jendeagaz harremantzeko eta hemendik aurrerako egitaraua aurkezteko. Eguneko egitarauari 15:00etan emango diote hasiera bazkariagaz; ondoren, 17:00etan Sostemible antzerki taldeak ordu beteko “parodia-sketch”-a egingo du, eta egunari amaiera emateko, Ou mama! musika taldeak kontzertua eskainiko du, 19:30etik aurrera. Bazkarirako txartelak 4 euroan eskura daitezke Tosun bertan, Eztabaida gunean eta Abian tabernan. Gainera, hurrengo hilabeteko agendarako astez aste egun bateko ekimenak antolatuko dituztela aurreratu dute Tosu landakoek, betiere autosufizientziari eta elikatzeko-subiranotasunari lotuta; hala nola, konposterak eta kontserbak egiteko tailerrak. ◀

GetxoGas

Txartel hau
aurkezten baduzu

**%50eko
deskontua**
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Getxo

Emakumeen jabekuntzarako ikastaroak martxan

Emakumeen jabekuntzarako kultura arteko gunea berriro hasi da martxan. Horrek, hemendik maiatzera bitartean hainbat saio hartuko ditu, zapatuetan guztiak, Jabekuntza Eskolan. Gaiak migrazioa, emakumeen arteko harremanak, sexualitatea eta amatasuna izango dira. “Helburua bertoko emakume eta etorkinen arteko topagunea ahalbideratzea da, sareak sortzen eta aurreiritziak eta estereotipoak apurtzen laguntzeko. Aldi berean, emakumeentzat komunak diren gaiak buruzko hausnarketa egitea ere da helburua”, azaldu du Berdintasun Zerbitzuko zinegotzia den Keltse Eigurenek. Saio horien gidatzaileak honakoak izango dira: Cony Carranza soziologoa eta generoan eta heziketa herrikoian aditua; Itziar Gandarias ikertzaile feminista eta psikologia sozialeko irakaslea; Saioa Hernandez sexologoa; eta Norma Vazquez psikologoa eta indarkeria matxistan aditua. Hurrengo saioak otsailaren 28an, martxoaren 14an eta 28an, apirilaren 18an, eta maiatzaren 16an izango dira, 17:00etatik 20:00etara guztiak. Horietan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du aldeztu aurretik. Horretarako, mezu bat bidali beharko da.

Info+: berdintasuna@getxo.net



aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Epaiketa politikoek ez dute etenik Algortan



Protesta Bilboko auzitegiaren aurrean

Euskal gizartea bake garai berri batean murgilduta egon arren, aurrera darraite euskal herritarren kontrako epaiketa politikoek

Horren adibide garbia dira Xabat Atxabal, Gabi Basañez, Marije Fullaondo eta Mikel Moreno algortarren kasuak. Atxabal eta Moreno gazteei desordena publikoak, desobedientzia eta agintaritzari eraso egitea leporatzen dizkiete 2008. urtean Durangon Herri Batasunaren 30. urteurrena ospatzeko ekitaldia Espainiako Auzitegi Nazionalak debekatu ostean jazotako gertakariengatik. Hori dela eta, Fiskaltzak 2 urte eta 9 hilabeteko espetxe-zigorra eskatu du bi gazteentzat. Guztira, 9 pertsona daude auzipetuta kasu horretan. Fullaondo, berriz, beste 34

lagunegaz eseri beharko da akusatuen aulkian Batasuna, Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista (EHAK) eta Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdietako zuzendaritzen kontrako 04/08 sumarioaren baitan. Fiskaltzak 10 urteko espetxe-zigorra eskatzen du horientzat.

Hiru auzokide hauen epaiketak urtarrilaren 12an hastekoak ziren, Bizkaiko Lurralde Auzitegian eta Espainiako Auzitegi Nazionalen, hurrenez hurren. Hala ere, egun horretan bertan euskal abokatuen kontrako sarekada burutu zuen Guardia Zibilak, eta atxilotutako 12 abokatuetatik lauk epaiketa horietan aritu behar zuten: Kepa Mancisidor, Bilboko epaiketan; eta Amaia Izko, Eukene Jauregi eta Haizea Ziluaga, Madrilgoan. Hala, bi prozesuak atzeratu behar izan zituzten akusatuen berme nahikorik ez zegoelako. Hiru egun geroago, Eloy Velasco Auzitegi Nazionalen epaileak abo-

katuak aske uzten zituela jakin ondoren, Zigor Aretoko Bigarren Sekzioak urtarrilaren 29a aukeratu zuen 04/08 sumarioaren epaiketa hasteko. Atxabal eta Morenoren aurkako prozesua, berriz, oraindik ez dute zehaztu noiz hasiko duten.

Horrez gainera, Mikel Morenok beste auzi bat du zain. 2013. urtean Urduñan ospatutako Gazte Danbada jaialdian Xabier Lopez Peña euskal preso hilberria gogoan izateagatik terrorismoa goratzea leporatzen diote, beste zortzi lagunei bezala. Espainiako Auzitegi Nazionalen fiskaltzak hamazortzina hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du horientzat.

Gabi Basañez, berriz, 2010eko irailaren 28an atxilotu zuten Askapenaren kontrako sarekadan. Hurrengo urteko apirilaren 2an aske gelditu zen, fidantzapean, eta oraindik ere ez dago zehaztuta noiz hasiko den bere aurkako epaiketa. ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza **inprimategia** **kopisteria**

cianoplan
GLOBAL PRINTING

Erandoio

Abaroak kaltetutako etxeak bota zain dabilta altzagarra

Kaltetuek, Aldundiak eta Udalak zortzi urtetako aferari behin betiko konponbidea eman nahi diote. EH Bilduk auzoko berdegune bakarria desagerraraztea salatu du



Abaroa enpresaren lanek kaltetutako etxebizitzetako batzuk

A lboan egiten ari ziren obra batzuek eragindako hondamen-diagatik, 2007ko urtarrilean Altzagako Ibarra eta Antxon Fernandez kaleetako zein San Agustin plaza-ko 45 familia beraien etxeetatik atera behar izan zituzten. Abaroa enpresaren eraikuntza lanak zirela eta, geroago beste 7 sendi gehiagok hustu behar izan zituzten pisuak eta lonjak. Gainera, 24 berkokatzeko lotu dira. Erandio-ko Udalaren arabera, bizi duten amesgaizto hori aurten amaituko da, zortzi urte beranduago.

Kaltetutako auzotar guztiek pasa den abenduan Azpiegiturak SAU foru elkarteari haien etxejabetasunak laga zizkieten. Horrezkero, Aldundiaren enpresak Udalarekin batera esleipen lanak prestatzeari ekin dio, hondatutako etxebizitzak bota eta berriak altxatzeko. Gauzak horrela, eraiste lanak "aurten" burutuko direla agindu du Udalak.

Bitartean, oraindik orain berkokatu ez dituzten 24 sendiei behin-behineko konponbidea eman beharko diete. Haietako 10 Pagoetako udal etxebizitzetara bideratuko dituzte, Udalbatzak iaz onartu bezala. Beste 14ak Altzagan pisua alokatzeko gestioak egiten dabil Udalak.

Halere, orain arteko ibilbidea ez da erraza izan. Udal eta foru erakundeek zein kaltetuek erdietsi duten akordioa-

ren arabera, Udalak Altzagako udal lursaila eman behar izan dio Aldundiari, bertan 400 etxebizitza tasatu egiteko. Operazio horretan metatutako den etekinak bideragarri egingo du kaltetuak behin-betiko berkokatzea eta Abaroaren auzia ixtea. Dena den, oposizioeko talde nagusiek, PSE-EEk eta EH Bilduk kritika bera egin diote EAJri, ñabardurak-ñabardura: afera kudeaketa kaxkarraz luzatu izana.

Sozialisten arabera, prozesuan zehar emandako hainbat pauso okerrak izan dira, adibidez Pagoetako udal etxebizitzaren inguruan: "etxebizitza baterako aukera gitxien daukaten auzokideek ere aukera izan behar dute alokairuzko udal-etxebizitza sozial batean sartzeko".

Koalizio subiranistak, berriz, adostutako konponbidea ez du begi onez ikusi, "Erandioko herriak garesti ordainduko baitu akordio hori". Izan ere, Azpiegiturak hartuko duen lursaila Altzagan libre geratzen den lur-remu "bakarra" dela gogoratu dute. Tartanga eta kiroldegiairen arteko orubea kirol-esparru eta berdegune izan behar zela nabarmendu du EH Bilduk. Bestalde, "EAJren babesari esker", Abaroa, 66 etxe suntsitu ostean "errugabe eta arduragabe" irten dela ekarri dute gogora. Horrez gainera, kaltetuei "izugarritzko alokairua" jarritz, etekina ateratzen ari dela gaitsetzi dute. ◀



Elena Perez, alkategai sozialista

Elena Perez Barredo erandioztarra Eizendatu berri dute bertako alkategai sozialista. Perezek Justizia administrazioan egiten du behar eta Ekonomia eta Zuzenbidean lizentziatua da. Sindikalgintzan, Bizkaiko zein EAEko PSE-EEko zuzendaritzetan eta Jaurritzan ibili da. "Ardura handia" hartu du, Erandion biztaleen %18 langabe baita, 2.132 lagun. EAJri lan politikan axolagabekeriaz jokatzeko egozten dio. Ostera, Gizarte Ekintza Arloa sustatuko ei du berak, gizarte laguntzak "benetan txarto pasatzen duten auzokideek" jaso ditzaten. Gardentasuna, parte-hartzea, Ibaizabal eta Astrabuduako hezegunea bultzatu gura du. ◀

Erabakitze eskubidea sustatzeko ekimenak abiatzear ditu GEDk

Erandioko Gure Esku Dago taldeak "Erabakia ehuntzen" lelopean, ekitaldi irekia burutuko du heldu den barikuan. 19:30etik aurrera, Altzagako merkatu zaharraren babesean, 2015erako plangintzaren aurkezpena egingo dute, Aiora Sedanok eta Txema Montoyak aurkeztuta, ostean lunch-a izango dela. Ez da, baina, erabakitze-ko eskubidearen aldeko kolektiboak esku artean darabilen ekimen bakarra. Datozen asteotan ere, izango dute zer erakutsi. Oraingoz, "herritarren borondateak jositako istorio bat" kontatzen duen *Jostunak* izeneko dokumentalaren emanaldi bi iragarri dituzte. Eric Zapiainek zuzendutako lanak pasa den ekainaren 8ko giza katerako bidea erakusten du. Ikusteko lehen parada Astrabuduan izango da, Josu Murueta kultur etxean, arratsaldeko 7etan. Bigarren emanaldirako, berriz, Erandio Landako gizarte etxean jarri dute hitzordua, arrastiko 7:30ean. Batean zein bestean, filma euskaraz proiektatuko dute, espainolezko azpitutuluak izango direla. ◀

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINITZA

- Soropila Ezartzea: lurazona prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, lurbeak-organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea: Moxia, ureztatzea, organitzea, eguraztea, aratzea eta destinkatzea, berrikatzea, soropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak: Hazteko, mantentzeko, beritzeko, zuhaioa apingariak inauszea, esabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaitza 28A behelko solarria B12 lokala (ERANDIO) Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberribasolanak.net - www.luberribiz

Leioa

Sakonetako igerilekuetara bueltatu dira lau hilabetez erbesteratutako erabiltzaileak



Sakonetako igerilekuak erabilgarri daude

Azken hobekuntza lanak egin eta gero, urtarrilaren 5ean zabaldu zituzten berriro Sakonetako igerilekuak. Hartara, lau hilabetez Getxo udalerriko Gobela eta Fadura kiroldegietako instalazioak erabiltzen egon ostean, Leioako kirol azpiegituran plisti-plasta ibiltzeko aukera izango dute berriro Sakonetako 4.000 bazkide baino gehiagok. Bertan aritzen diren kirol taldeak ere lekuz aldatu behar izan zituzten, ezustean, beste obra batzuen beharra agertu ostean. Adibidez, waterpoloko talde federatuak Erandioko igerilekuan entrenatzen ibili dira denbora honetan. Horiei guztiei izandako pazientzia eskertu die Mari Carmen Urbietta alkateak. Obra guztiek, aurreikusitakoek zein ezustean agertutakoek, 375.000 euro inguruko gastua ekarri dio Leioako Udalari.

Abuztuan egiten den kiroldegia

itxiera aprobetxatuz, aurren, igerilekuak egokitzea erabaki zuen Udalak. Hobekuntza obra hauek honakoak ziren: igerilekuen aireztapena hobetzea eta zonalde honetako sabaia egokitzea. Eta bide batez, filtroak eta konpentsazio basoak hobetzea, Sakonetako igerilekuen "kalitatea nabarmen handitzeko" asmoz. Zoritxarrez, hobekuntza horiek egiten ziren bitartean, ezustean, estrukturan egin beharreko beste obra baten beharra agertu zen; kaltetuta zeuden sabaiari eusten zioten zutabeetan, udal iturriek bere garaian azaldu zuten. Hori dela eta, lehenengo lanei ekin baino lehen horiek konpondu behar izan zituzten, Sakonetako igerilekuen ohiko itxialdi garaia beste hiru hilabetez luzatuz.

Obra horiez gain, igerilekuetako ura desinfektatzeko izpi ultramore sistema jarri dute, horrenbeste kloro erabili behar ez izateko. ◀

Bueltan da "Barikuetan jai" aisialdi programa

Gabonetako oporren ostean, urtarri-laren bigarren ostiralean bueltatu zen plaza eta kaleetara "Barikuetan jai" egitasmoa. Hain zuzen ere, hila-betea amaitu artean, beste bi hitzordu izango ditu Leioako Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako ekimenak: aukera izango dute neska-mutilek, hilaren 23ko sukaldaritza tailerrean. Bestalde, 30ean munduko dantzak egongo dira. Bi hitzorduak 17:30ean izango dira, Barandiaran institutuko patioan. Otsailari dagokionez, plasilina tailerra, buruhandiak egitekoak eta aniztasunaren bingoa egongo dira 6an, 20an eta 27an, hurrenez hurren.

Martxoan, berriz, "Trotamundis" izenburuko azoka-antzerki ikuskizuna izango dute neska-mutilek, Pom-pon antzerki taldearen ekimenez, 6an. Hile horren 13an eta 27an, perkusio tailerra eta Euskahaldun Jaia izango dira.

Leioako Udalaren Euskara Zerbitzuak martxan jarritako programa honen helburua da haurrek eta familek euskara erabiltzea herriko plazetan eta kaleetan, eta horretarako apiriletik ekainera jarduera bereziak egingo dira euskarazko harreman-sareak zabalitzeko eta euskara erabiltzeko guneak sortzeko asmoz. ◀

info +: barikuetanjai.wordpress.com



Leioako alkatea (ezkerrean) txekia ematen. LEIOAKO UDALA

Behartsuentzako lau mila euro batu dituzte Mari Pepa eta Arloteren panpinak salduz

Leioa Bidean izeneko ekimen solidarioaren bitartez, 4.000 euro baino gehiago batu dituzte tokiko hainbat saltoki eta tabernek, gizarteratzean lan egiten duen Sortarazi elkarteari emateko. Gabonetan zehar herriko jaien ikur diren Mari Pepa eta Arloteren panpinak saltzen ibili ziren merkatariak. «Azkenean, 74 panpina txiki eta 41 handi saldu ziren. Handiek 20 euro balio zuten eta txikiak 10», azaldu dute arduradunek. Prezio horiek aintzat hartuta, guztira 1.580 euro batu dira panpinen salmentarekin.

Bestalde, abenduaren 18an afari solidarioa egin zuten, Mendibile jauregian. Ongintzazko afarian 1.750 euro batu ziren guztira. Pertsona bakoitzak ordaindutako 50 eurotatik erdia dohaintzarako ziren. Horretaz gain, aukera eman zitzaion afarira joan ziren 70 lagunei Mari Pepa eta Arlote panpinetako bat lortzeko, zozketarako txartelak salduz bi eurotan, 710 euro gehiago eskuratuz. Hori guzti hori herritarrek beren kontura emandako aparteko ekarpena gehitu behar zaio: 172,70 euro. ◀



Ertzean

LAURA MINGE
Idazlea eta irakaslea

Ertzean berriz

Ertza» zen EHUrako hautagaitza 1990ean. «Ertzetik» aritu nintzen Euskaldunon Egunkarian sei urtez, 1994an hasita. Eta HIRUKAri esker berriz dut «Ertzean» jarduteko aukera, muga, hegalean: tokikoaren eta nazionalaren artean; hausnarketaren eta boteprontoaren artean; politikoki zuzenaren eta begintazio subjektiboaren artean.

Inflekzio puntu batean gaude politikoa eta sozialean, balioetan eta ohituretan. Agian unea heldu da badakiguna desikasteko, bidaide berriak batzeko eta mapak berregiteko. Helmuga apika ez baitago uste genuen lekuan, eraikiko dugunean baizik. ◀

Sopela



Jolasguneen egoerak alderdien arteko eztabaida sortu zuen

Udalbatzak atzera bota ditu 2015. urteko aurrekontuak

Iazko kontuak luzatu behar izan ditu Udalak, oposizioko alderdi guztiek kontuen kontra bozkatu ostean. Udal Gobernuak ia 13 milioi euroko proposamena aurkeztu zuen, milioi bat euroko inbertsioakaz

Bigarren aldiz agintaldi honetan, Sopelako Udalak ez du aurrekonturik izango. Abenduaren 30eko osoko bilkurak atzera bota zuen Udal Gobernuak aurkeztutako proposamena, eta horren ondorioz, iazko kontuak luzatu behar izan dituzte. Bilduk gidatzen duen gobernuak ia 13 milioi euroko kontuak proposatu zituen, baina koalizio abertzalearen aldeko botoak bakarrik jaso zituen. Izan ere, oposizioko alderdiek kontra bozkatu zuten: EAJ (7), PSE-EE (2) eta PP (1).

Leire Pinedo Bilduko bozeramailearentzat, oposizioko alderdien jarrera "arduragabekeria" izan da: "Kontuen kontra bozkatu dute inolako proposamenik aurkeztu gabe". Bere ustez, Udal Gobernuak "aurrekontu orekatuak" aurkeztu zituen, milioi batetako inbertsioakaz: 315.000 euro bidegorri-sarea handitzeko, 150.000 euro Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorrerako, 146.000 umeen jolasguneak konpontzeko, 125.000 euro irisgarritasuna hobetzeko, eta abar. Udal Gobernuak argitu duenez, oraingoan udalbatzaren ezezkoa jaso duten arren, hurrengo udal bilkuretan aurrekontuetan proposatutako hainbat proiektu aurkeztuko dituzte, bilkuren onarpena jaso dezaten.

Oposizioko alderdiak, barriz, kri-

tiko agertu ziren Udal Gobernuaren proposamenagaz. Gontzal Hermosilla EAJko bozeramaileak adierazi zuen ez duela konfiantzarik Udal Gobernuarengan: "Iazko aurrekontuen akordioa ez dute bete". PSE-EEko Teresa Fernandez zinegotziak Udal Gobernuaren "gardentasun falta" salatu zuen, eta kulturaren aurrekontu "lar" inbertitzea leporatu zien udal agintariei. PPko kide Berta Rodriguezek, azkenik, aurrekontu-proposamena Bilduren "kudeatzeko gaitasun eskasa"-ren adierazgarri zela adierazi zuen.

Aurrekontuak, oster, ez ziren Bilduren eta oposizioko alderdien arteko eztabaida bakarra izan. EAJk urgentziazko mozio bat aurkeztu zuen, Udal Gobernuari "jolasguneak konpon ditzala" eskatuz. Jeltzaleen testuak PSE-EE eta PPren aldeko botoak jaso zituen, eta Sopelako hainbat jolasgunek konponketak behar dituztela salatu zuten. Fernando Sanchez Herri-Lanetako zinegotziak, ordea, Udal Gobernuaren jarrera argitu zuen: "Udalera heldu ginenean jolasguneen audiotretza egin genuen, eta egoera kaskarrean zeudenez, urtero jolas bi konpontzea eta beste bi barri sortzea erabaki genuen. Orain arte jolasgune barri ugari sortu ditugu". ◀

info +: www.sopela.eus

Surfa eta naturaren erreserba bihurtzeko asmoz

World Surfing Reserve egitasmoaren kide izateko eskaera egin du Sopelako Udalak; olatuak, hondartza ingurua eta natura babesteko asmoz. Egitasmo hau Save the Waves Coalition erakundeak sortu zuen 2009. urtean, olatuak, hondartzak eta bere giroak identifikatu eta babesteko asmoz. Gaur egun, munduko sei hondartzak osatzen dute erreserba hau, eta Sopelakoa Europako bigarrena izango litzateke, Portugaleko Ericeiragaz batera. Udalaren arabera, erreserbagaz Sopelak "oihartzuna izango luke nazioartean, turismoa indartuz". ◀

info +: www.sopela.eus

Jostunak filma Gure Esku Dagoren eskutik

Sopelako Gure Esku Dago taldeak Jostunak dokumentala eskainiko du urtarrilaren 23an, 19:00etan Kurtzio Kultur Etxean (sarrera debalde). Aipatu film honetan herri-egitasmo honen lehenengo urratsak azaltzen dira, eta iazko giza-kateko irudiak batzen ditu. Era berean, hurrengo asteetan bultzatuko duten ekimenen barri emango dute: "Erabakitze eskubidearen inguruan dauden korapiloak askatzeko asmoa dugu, herriz herri". Herri-ekimeneko kideek azaldu duten legez, "edozein auzokidek parte har dezake Gure Esku Dagon, talde irekia gara, eremu ezberdinetakoak". Sopelako taldeagaz e-posta honetan harremanetan jar zaitezke:

gureeskudagosopela@gmail.com

info +: www.sopela.eus

Guggenheim Museoa berbagai Kurtzion

Hiru berbaldi antolatu ditu Guggenheim Museoak Kurtzio Kultur Etxean, otsailaren 4an, 11n eta 18an. Ikastaroaren helburua arte garaikidea herritarrei gerturatzea izango da, eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da alde aurretik izena ematea: urtarrilaren 30a baino lehen, Kurtzion (18 urtetik gorakoentzat). Berbaldiak debalde izango dira, gazteleraz, eta hainbat gai jorratuko dituzte: Solomon Guggenheim Fundazioaren sorrera, Bilboko museoaren arkitektura, tailer plastikoa eta aldi baterako erakusketak, eta abar. Berbaldi danak 19:00etan izango dira, eguaztenetan. Horrez gain, musoera bisitaldi gidatua antolatuko dute otsailean, debalde. ◀

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
Inglaterra egonaldia
Dr. Landa 6 eta Ibarre 9 / 48600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didakhilton.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia
Ane Nafarrate Martin
Doctor Landa 4, Sopela
Telf: 946026779

Hautzaindegitik baxilergora
arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.net
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
IKASTOLA

Plentzia**Izanik elkarteak laguntza behar du ume bielorrusiarrak gurean hartzeko**

Aurtengo udan, aurrekoetan bezala, Bielorrusiatik etorritako 8 eta 9 urte arteko 12 neska hartuko ditu Plentziak ekainaren 20tik abuztuaren 9ra arte, Izanik elkartearen eskumenez. Ume hauek Klimovichi probintziazatik etorriko dira, 1986an Chernovyl-en gertatutako ezbehar nuklearraren eraginez izugarrizko ondorioak jasan zituen lurraldeetako batetik. Zonalde horretako neska-mutilek osasun arazo larriak pairatzen dituzte, eta “euren jaioterriatik hiru uda kanpoan igarotzeak osasuntsuago egotea dakar”, azaldu du Marisa Saez Izanik elkartearen kideak. Hori dela eta, Plentziako Izanik elkarteak udaro hainbat neska ekartzen ditu udalerrira hiruna uda gurean igarotzeko. Horretarako, elizan katekisi klaseak ematen diren lokala alberge bilakatzen dute horiek hartzeko. Hala ere, proiektu hori aurrera eraman ahal izateko, herritarren laguntza beharrezkoa dela aitortzen du. Aurtengo, gainera, azken urteetan Plentziara etorri diren neskentzako harrera-familiak ere behar dituztela jakinarazi dute. Hala, ume horietako bat hartu nahi duenak 635 736 359 telefono zenbakira deitzea besterik ez du. Horrez gainera, aurtengo etorriko diren 12 neska berriei laguntza eskaintzeko jendea behar dutela ere ohartarazi dute. Hortaz, interesatuek 688 807 281 zenbakira deitu ahal izango dute. ◀

Kantuan murgilduko dira plentziarrak urtarrilaren 23an

Kantazaleek aukera ezinhobea izango dute urtarrilaren 23an izango den Kantaguneagaz. Lehenengo hitzordua 19:00etan jarri dute Baselizan entsaizteko; 20:30ean, kantujira abiatuko dute alde zaharrean barrena. ◀

Berango

Landaia Goikoa ingurua

Dena prest Mercadona eta Decathlon Berangon ezartzeko

Berangoko Udalak Landaia Goikoa sektorea garatzeko urrats berria eman du udalerriko zonalde horren Plan Partziala onartu ostean. Hala, inguru horretan ezarri nahi diren iniziatiba guztiak martxan jarri ahal izango dira, eta jada Mercadona supermerkatu kateak eta Decathlon arropa dendak baieztatu dute eremu horretan ezarriko direla. Lehenengoa 2017rako finkatuko da, 1.500 metro koadro hartuko ditu eta 40 lanpostu sortuko ditu; bi-

garrenak, berriz, 80 lanpostu ekarriko ditu udalerrira.

Plan Partzialean zazpi lursail berri aurreikusten dira. Horietako bakoitzak dimentsio ezberdinak izango ditu, 1.500 eta 11.000 metro koadro artekoak. “Etorkizunean hirugarren sektorea garatzeko eta ekonomia-jarduerak bultzatzeko lekua erraztea da helburua”, aipatu du Anabel Landa Berangoko alkateak.

Landaia Goikoa 84.000 metro koadroko azalera garatuko da. Horietako

24.500 metro koadro berdeguneetarako eta aparkalekuetarako bideratuko dituzte; eta beste 50.700 metro koadroetan eraiki ahal izango da.

Aipatu lursailak kokapen estrategikoa du, egungo industrialdeetarako sarbide zuzena hobetuko baitu, erdigunetik igaro barik. Sektore berriak Arene eta Arebeta lotuko ditu. Honenbestez, hiru zonaldeak batzen dituen lokarria izango da. Arebetaren kasuan, honek Eroski industria-gune berriaren parte izatea ahalbidetuko du. ◀

Udalak kirola sustatzeko diru-laguntzak emango ditu

Auzotarren artean kirola sustatzeko Asmoz, Getxoko Fadura kiroldegia zein Sopelakoa erabiltzen dutenei diru-laguntzak emango die Udalak. Arduradunek azaldu dutenez, ez dituzte diruz lagunduko, Getxoko kiroldegia dagokionez, urtebetekoa baino iraupen laburragoa duten abonamenduak edo aribideko urtekoak ez direnak;

eta, Sopelakoari dagokionez, urtebetekoak baino iraupen laburragoa duten abonamenduak edo aurreko urtekoak ez direnak. Diru-laguntzak jasotzeko eskaerak Udalbatzako Alkate jaun / andreari zuzendutako eskaera orri ofizialean aurkeztu beharko dira eskatutako agiri guztiak batera. ◀

info +: www.berango.net

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa”
Prentsa - Frutur lehorak - Alkidiak - Lintarriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

lacofris
MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETKO GARANTIA
IRTEERA DOAN
Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORIA
www.lacofris.es - sat@lacofris.es



Gorliz



Gorlizko udaletxea

Euskaraz %21ek bakarrik egiten du kolean

Gorliztarren %73,4 euskalduna edo ia euskalduna den arren, euskararen kale erabilera %21,7koa da Soziolinguistika Klusterrak Uribe Kostan 2012ko maiatzean aurkeztu zuen Hizkuntza erabileraren kale-neurketaren arabera. 2011n egin-dako neurketa horren arabera, 2006tik aurrera euskarak %14,1 egin du gora kale erabileran; hala ere, datuak positiboak direla esan daitekeen arren, ezagutza eta erabileraren artean desoreka handia dagoela azaldu du Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak.

Udalerrri honetako auzokideen %39,8 euskalduna da, %33,4 ia euskalduna eta %26,6 erdalduna. Guzti horien %13,44ren ama hizkuntza euskara da, baina etxean %9,36 egiten da soilik euskaraz. Biztanleen %74,6ren ama hizkuntza, berriz, gaztelania da

Erabilerak gora egin duen arren, ezagutzaren eta erabileraren artean desoreka handia dago

eta etxeetan %79,6k jotzen du hizkuntza horretara.

Adin taldeari dagokionez, haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; haurrek nagusirik gabe daudenean %24,3 egiten dute euskaraz, eta nagusiak haurrik gabe daudenean %4,6. Nagusiak eta haurrak alkarregaz daudenean, aldiz, %40,7 egiten da euskaraz.

Irakaskuntzan, Gorlizko Ikastetxean haur guztiek euskaraz ikasten dute, bertokoek zein atzeritarrek. Lan munduari dagokionez, berriz, emai-

tzak 2012koak izan arren, gutxi gora behera establezimenduen %30ean euskara erabil daitekeela azaltzen du Euskara Planak.

Kirol esparruan, haurrentzako eskaintza ia osoa euskarazkoa den arren, helduena gaztelaniazkoa da gehiena.

Euskarari bultzadatxo bat emateko, Gorlizko Udalak lau urtera begira (2014tik 2017ra bitartean, biak barne) plangintza estrategikoa onartu du, 16 puntu biltzen dituena: familia bidezko transmisioa; irakaskuntza; euskalduntze-alfabetatzea; administrazioa; gune geografiko euskaldunenak; arlo sozioekonomikoa; aisia eta kirola; liburugintza; kulturgintza; publizitatea; corpus-plangintza eta euskararen kalitatea; hedabideak; informazioaren eta komunikazioaren teknologia; sentzibilizazioa eta motibazioa; barruko proiektzioa; eta kanpoko proiektzioa. ◀



Sarritik Borobiara

PAUL BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

HIRU(K)A: Herrigintza, komunitatea eta lankidetzak

Pitagorasen arabera, zenbakien zientziak hirua zuen eragiketen oinarri. Platonek zioen hirua zela Goi Izakia-
ren irudia bere hiru pertsonaliteetan: materiala, espirituala eta intelektuala. Hiru forma geometrikok elkarrekin bat eginda kristauen Hirutasuna adieraz dezakete. Satanez hiru hortza darama eskuan, bai eta Neptunok ere. Greziako mitologiak munduaren inperioa hiru eremutan banatzen zuen. Musikan hiru tonu bereizten dira, eta hiru klabe daude. Fisikak materiaren hiru egoera bereizten ditu eta naturan hiru erreinu daude. Argia prisma baten bidez deskonposatuz gero, oinarritzko hiru koloreak agertzen dira...

Hemendik aurrera, HIRUKAren bidez, hiru zenbakiak garrantzi berezia hartuko du Uribe Kostan euskaraz bizi nahi dugunontzat. Akaso, horrexegatik, hiru hitz etorri zait burura proiektu komunikatibo sendo eta jaio berri hau definitzeko: Herrigintza, komunitatea eta lankidetzak.

Beste behin, herrigintza izan da euskararen inguruko proiektu baten motore. Gure herrian, beste hainbatetan bezala, gizarteak sustatu eta bultzatu egin du euskaraz bizitzea ahalbidetuko digun tresna berri bat. Izan ere, komunitate bat du atzean Hiruka proiektuak. Euskaldunon komunitate trinko, sendo eta egituratuak emango dio sostengua proiektuari eta, zalantzarik ez dut, horri esker egingo duela aurrera; beti bezala, guztion lankidetzarekin. Eta, beraz, biziki eskertu nahi diot Hirukari, zutabe honen bidez proiektuko kide izateko eskaini didan aukera. Ekin diezaigun eta eraiki dezagun, bada, herrigintza, komunitatetik zein lankidetzatik eta bihur dezagun hiru(k)a Uribe Kostako magiazko zenbaki!!! ◀

OIARBIDE DEKORAZIOA

· Pladur: Tabikeak, zapaia, bakoak
· Eskaiola: moldurak, kornisak
· Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaioiari@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

Especialistas en desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos
www.cafebarzuazua.com
Iturgibai 13, PLENTZIA
Tf. 94.677.31.28

berezi
Hamburguesas
Bocatas
Sandwiches
Platos combinados
Sanwichak
Plater konbinatuak
SABINO ARANA, 34 49640 - BERANGO
PEDIDOS: 946 681 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

OSTABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

UKnatura
Bioeraikuntza
Ingurugiro hezkuntza
ikastaroak eta proiektuak

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tf. 944305343 / 607952977 & reparatu@gmail.com
www.garaizar.biz
Berta Kalea 1 ALGORTA

Barrika



Iñigo Urkulluk Elorduy Fundazioaren egoitza bisitatu zuen instalazioen ehungarren urteurrenaren harira. Juan María Aburto Enplegu eta Gizarte Politikoen arloko alhadunagaz batera, Urkulluk instalazioak bisitatu eta bertoko erabiltzaileak zein langileak berba egin zuen.

Barrika ere frackingaren kontra

Presio hidraulikoaz baliatuz lurzoruko harroak pitxatuz gas naturala ateratzeko “fracking” izenagaz ezaguna den teknikaren kontra agertu da Barriako Udala. Abenduaren 18an egindako osoko bilkuran Barrika “fracking gabeko udalerrri” izendatu zuten EH Bilduk jarritako mozioa onartuz. EAJren hiru zinegotziak horren kontra agertu ziren, Udalbatzako beste zinegotzi guztiek testuaren alde bozkatu zuten.

Mozioak Bizkaiko kostaldeko 47.940 hektareetan zehar frackingaren bidez gasa ustiatzeko martxan dagoen Geminis proiektua ahalik eta gehien atzeratzea, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari ohiko Ingurumen-Inpaktu txostena egin dezala eskatzea, herritarrei haustura hidraulikoak udalerrian sor ditzakeen efektuez informatzea, udalerriko HAPOn frackinga bateraezina dela zehaztea eta frackingaren kontra agertu diren inguruko herriak koordinatzea eskatzen du.

Urduliz

OHZren murrizketak familia ugariei

Udalak %90eko bonifikazioa eman-
go die familia ugariei Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (OHZ). Aipatu deskontua progresiboa izango da familiaren ondorengoaren arabera. Hala, murrizpen hau jaso ahal izateko, familiak gutxienez hiru ondorengo izan behar dituzte, eta hortik aurrera, gehieneko deskontua %90era ailegatu ahal izango da.

Familia ugariak ez dira zergen murrizketen onuradun bakarrak. Izan ere, Plusbalioaren zergak ere murrizpenak izango ditu. Pertsonen artean ondasunak transmititzeko zerga honek ere %90eko bonifikazioa izango du eskualdatzea ezkonlagunen artean

denean eta horietako baten heriotza baten ondorioz ematen denean. Aipatu deskontua nagusiei zuzenduta dagoela jakinarazi dute arduradunek, ohikoa izaten baita horrelako egoerak suertatzea pertsona nagusi horien artean.

Horrez gainera, tokiko Udalak jakinarazi du bestelako zerga guztiak izoztuko dituela 2015rako. Erabaki hauek hartzerako orduan, bi faktore izan dituzte kontutan: Udaleko diru-kutxak onbideratuta egotea eta hainbat familiak bizi duten egoera ekonomiko larria. Izan ere, krisi ekonomikoa hasi zenetik, udalerriko langabezia tasa %6tik %12ra igo da.

Herriguneko zirkulazioa hobetuta

Ehortsako biribilguneak herriguneko zirkulazioa hobetu du. Horrez gainera, udaletxearen inguruan segurtasuna handitzea izan dute helburutzat. Hala, biribilgune honeguz, istripuak murriztea eta oinezkoen irisgarritasuna hobetuko dela aurreikusiten dute udal agintariak.

Lan horrez gainera, udaletxearen inguruko espaloietan zeuden matxurak konpondu dituzte, errepidea eraberritu dute eta kanalizazioak hobeto ordenatu dituzte. Hala, obra horiekaz denakaz, Udalak udalerriri zituen bide-beharrizan guztietara egokitzea lortu du.

Aurrera doaz Marutze auzoako lanak

Marutze auzoko bigarren fasea amaitzeaz dago. Hala, auzoaren irisgarritasuna hobetu, berdeguneak ezarri, ospitalerako bidean pasealekua egin eta umeentzako jolastoki berria jarriko dituzte, besteak beste. Lan horien ondorioz, 1.300 metro koadroko berdegunea irabaziko du auzoak. Gainera, aparkaleku gehiago egongo dira inguru horretan. Horrez gainera, eraikinen artean dauden plazetan eserleku berriak eta umeentzako espazioak sortuko dituzte. Hala ere, lan horiek aurrera eramateko aurreikusita zegoena baino denbora gehiago behar izango dute.

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

BODEGUILLA BUTRON
Bidebarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

TABERNA Ekin
JATETXEA
CALLE BOKUE Nº4
TEL: 946080462

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaitz-piko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GURE ETXEA
taberna
HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIRCH, PORTUA
Aritake a.g. • TFA Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

fugu
old fish, ooty & belly
Bar batean eginda jasoaraz eta tradizionalean
www.fugulazarenas.com
Erroto Chumua Kasa 2 (onjel) - Bidaia Zubia erparantz - Areeta - GETXO
944 808 796
Bidebarte-errea Getxo eta Liria

Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bontabu 2 Tf. 94 676 03 28 SOFELA

txakoli
motaTx
txakolina
Iraola-urbe enpresa 34 (Aitorandia Parke) Galtzeri-erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimatagone.com

portu zaharra
bar
Portu Zaharra katea 20
48901 Algorta-Getxo
Tf. 94 468 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

TABERNA Unai
JATETXEA
ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48901 GETXO (BIZKAIJA)
TEL. 944661661
TABERNAXUNAI@HOTMAIL.COM



Melillara bueltan

Olentzeroren bilobari Gurugu mendira heltzea eragotzi zion gabonetan Marokoko Poliziak; senideen mezuen eta oparien zain daude heziaren beste aldean

Egun hauetan Melillara bueltatuko da Olentzeroren biloba, Gabonetan ez baitzioten utzi bere lana bukatzen. Espainia eta Maroko banatzen duen muga zeharkatzera zihoala, Iñigo Iraultza "Iru" aktore itzubaltzetarra atxiki egin zuten herrialde afrikarreko poliziek; eta bi orduz gela txiki batean sartu,

berak adierazi duenez. Beste alde-
ra pasatzeko aukerarik ez zuen izan. Denbora luzez Gurugu mendian hezia zeharkatzeko zain dauden horiei dagoeneko muga igaro duten senide eta lagun bideo-mezuak helaraztea zen Olentzeroren bilobaren asmoa. Gainera, lana borobiltzeko, Melillako irudiak ere txertatu nahi ditu "Olen-

tzero Munduan, Arraun the World" proiektuaren inguruan egiten dabilen dokumentalean. Ondoren, eskoletan zein zinema aretoetan eman gura dute hori, haurrentzat aberasgarria izan daitekeelakoan.

Duela urte batzuk Iñigo Iraultza "Iru" aktorea Olentzeroren iloba bihurtu eta munduko bira emateari ekin zion, hemen bizi direnen nahikariak, opariak eta bideo bitartezko mezuak munduko beste herrialde batzuetan maite dituzten pertsonen helarazteko, banatzeko eta. "Olentzero Munduan, Arraun the World" izena jarri zioten proiektuari. Lehen etapan Euskal Herria eta Afrika lotu zituen Olentzeroren ilobak. Bigarren bidaian, ordea, hiru hilabetez jardun zuen ametsak eta ilusioa banatzen Mexikon eta Er-tamerikan (Guatemala, Honduras eta Nikaragua). Eta 2013an Filipinasen.

Joandako Gabonetan, bi anaiaren istorioak eraman zuen Olentzeroren biloba Melillara. Bi mutilak elkarrekin abiatu ziren Gambiatik eta batek hesia zeharkatu zuen eta besteak ez. Gurugu mendian bi urte daramatza eta anaiak ez du bere berririk. Bi anaien istorioak Melillako hesian gertatzen ari dena islatzen du. ◀



Bueltan da "Neguko bidaia" musika zikloa Getxon

Urtarrilaren 17tik otsailaren 21era arte, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, "Neguko bidaia" izeneko kontzertu-solasaldien zikloaren zazpigarren ekitaldia izango da. Emanaldi bakoitzean, pertsona baten gidaritzapean, musikatik ibilbidea egitea proposatzen du ekimenak, Getxoko Kultur Etxeak azaldu duenez. Kontzertuak larunbatero egingo dira, 19:30ean, zentroko areto nagusian.

Horrenbestez, urtarrilaren 24an Fetén Fetén taldearen txanda izango da, Jorge Arribas eta Diego Galaz musikariak sustatutako erroko musikaren proiektua, eta 31n Boston Haize Boskoteak jardungo du.

Sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da eta ziklo osoaren abonua 25 eurokoa. Musika Eskolako ikasleentzat merkeago izango da, 3 euro eta 15 euro, hurrenez hurren. ◀

Narrazio Laburren Lehiaketa abian du Araldik

Plentziako Araldi Emakumeen Kultur Elkartek 24. aldiz antolatu du Narrazio Laburren Lehiaketa. Sariketa 16 urtetik aurrerako lagunei zuzenduta dago eta urtarrilaren 30era arte izango da idatzia emateko aukera, euskaraz zein gaztelaniaz. Izan ere, epaimahai-ko kideek bi hizkuntzetan helarazitako lanak baloratuko dituzte, Araldi taldeko kideek azaldu dutenez. "Emakumeak genero ikuspegiarekin" izango da aurten landu beharreko gaia; hau da, hori dena delakoa izanda, "emakumeen ikuspuntutik" jorratuta egon beharko du. Emakumezkoek ez ezik, gizonezkoek ere parte har dezakete Narrazio Laburren Lehiaketan.

Sari banaketa martxoaren 20an egingo dute Goñi Portal kultur aretoan, 19:00etan. Epaimahaiak aukeratutako lanik onenaren egileak 400 euro jasoko ditu. Bigarren sarituak, berriz, 300 euro. Eta hirugarrenak 200 euro. Horrez gainera, 100 euroko accesita egongo da. Narrazio Laburren

Lehiaketaren oinarriak Goñi Portalen eta Araldi elkartearen egoitzan (Kristo kalea, 8) eskuragarri daude. Informazio gehiago eskatzeko ondoko telefono zenbakia ere jarri dute: 94 677 50 31. ◀

Parte-hartzaileak:

Sariketa 16 urtetik gorako gizon-emakumeei zuzenduta dago.

Gaia:

Emakumeak genero ikuspegiarekin.

Lanak emateko data:

Urtarrilaren 30era arte egongo da idatzia emateko aukera, euskaraz zein gaztelaniaz.

Sariak:

- saria: 400 euro
 - saria: 300 euro
 - saria: 200 euro
- Accesita: 100 euro

Informazio gehiago:

94 677 50 31



BILBO

Zinegoak jaialdiaren zain Uribe Kostan

Bilboko Gay, Lesbo, Trans Nazioarteko Zine eta Arte Eszenikoaren Jaialdiaren 12. edizioa urtarrilaren 26an, astelehena, abiatuko da Bilboko Arriaga antzokian 20:00etan izango den hasiera ekitaldiaren bitartez. Gainera, lehenengo aldiz debalde izango da, antolatzaileek nabarmendu dutenez. Otsailaren 1era bitartean Bizkaiko hiriburuan leku izango

dute proiektzioek. Ondoren, otsailaren 5etik martxoaren 1era bitartean, beste 14 udalerritara zabalduko da Zinegoak jaialdia.

Horrenbestez, bina ekitaldi izango dira Leioan eta Algortan. Hurrenez hurren, 1un eta 12an zein 22an eta 25ean. Otsailaren 22koa nerabeei zuzenduta egongo da, 18:00etan, Gauegun gaztelekuan. Sopelan, be-

riz, 25ean egongo da saioa, Kultzio kultur aretoak, 19:30ean.

Miguel Albaladejo zine zuzendaria izango da aurtengo ohorezko sarria jasoko duena. Beste hainbat sariz gain, Alacantekoak Goya sarietarako lortu zuen lehenengo nominazioa ekarri zion La primera noche de mi vida (1998), Elvira Lindorekin batera idatzitako filmarekin. ◀

GETXO

Txorimalo bere urteurrena prestatzen jada 2006ko apirilaren 11an okupatu zuten Txorimalo gaztetxeak bederatzi urte ber-teko ditu aurten. Data horren inguruan hainbat ekitaldi izango dira Getxon eta Algortan. Bada, urteurrena behar bezala prestatzeko, biltzen hai dira jada. Ostiralo batzar irekiak egingo dituzte Txorimalon bertan, 16:30ean. Aurrekoetan ez bezala, ospakizunak ez dira bost egunez luzatuko; lau egunez baizik. Bestalde, larunbateko egun handiko oturuntza bertso bazkari bilakatu nahi dute, ahal bada, bertsolari ezagunak lortuz. ◀



ALGORTA

Bere lehenengo eleberriaz jardungo du Ana Jakak

Urte berriari hasiera emateko, Anaka Jaka idazle andoaindarra-ren hitzaldia antolatu du Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak, Ez zen diruagatik liburuaz berba egi-teko. Solasaldia urtarrilaren 29an, osteguna, izango da, 19:30ean, Villamonteko kultur etxean. Ana Jakak hirukote “atipiko” baten go-rabeherak kontatu ditu bere eleberrian. ◀



2015/01/22

"La caza" filma
Kurtzio kultur etxea | Sopela
18:00

2015/01/22

EH Bilduren Energia Konpromisoa hizpide
Ertutxena eraikina | Gortiz
19:00

2015/01/24

EH Bilduren herri programa lantzeko mintegi irekia Leioan
Errekalde plazako nagusien etxea Leioa
10:30

2015/01/24

Epaiaketa politikoen kontrako bertso-poteoa

Energia konpromisoa eta telefonía antenak hizpide

Urtarrilak 22, eguena, EH Bilduren energia konpromisoari buruzko hitzaldia izango da Gorrizen. Hitzordua 19:00etan jarri dute Sertutxena udal eraikinean. Koalizio abertzaleak Energia Konpromisoa izeneko zortzi puntuko plana aurkeztu du. Iturri be-

Bestalde, hilaren 29an, osteguna, “Telefonia antenak: ardura printzipioa” hitzaldia emango dute Inigo Bilbao plentziarrak eta Dani Maeztu EH Bilduren legebiltzarideak. Solasaldia 19:00etan izango da Plentziako Goñi Portal kultur etxean, EH Bilduk jakinarazi duenez. ◀



Inauteriak prestatzen Barrikan

Urriarilaren 30ean, otsailaren 6an eta 13an 4-11 urte bitarteko haurrei zuzendutako mozerro tallerrei hasiera emango diete Barrikan. Saiotetan zehar, txikiak Inauteri mozerro dibertigarria prestatzeko aukera izango dute euren eskuak erabiliz. Aurretik izen ematea, plaza mugatuak ▶

Noiz: Urtarrilak 30. otsailak 6 eta 13. 18:00
Non: Liburutegia
Parte-hartzea: Aurretik izena eman behar da / 94 677 51 63
4-11 urte bitarteko aurrei zuzenduta

**Zure ekitaldiren bat hemen ikusi
nahi baduzu, bi aukera dituzu:**

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2

**www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide
egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia
Agenda atalean.**

2015/01/22	Hirukaren jendaurreko aurkezpena Ekin taberna (Bolue, 4. Algorta) Getxo 19:00
2015/01/22	Bertso-saioa Eztabaidan Eztabaida Gunea Getxo Ekaitz Larrazabal "Katxo", Josu Landeta, Dani de Miguel eta Beñat Vidal. Gaiak jartzen, berriz, Joanes Igeregi. 19:30
2015/01/22	Urban taldearen pop kontzertua Silver´s Tavern (Algorta) Getxo 20:00
2015/01/23	Txorimalo gaztetxearen urteurrena prestatzeko batzarra k barikuro Txorimalo gaztetxea Getxo 16:30
2015/01/23	"Spirit, un corcel indomable" familia filma Ander Deuna kultur aretoa Barrika 18:00
2015/01/23	Gure Esku Dagoren "Jostunak" dokumentala Kurtzio kultur etxea Sopela 19:00
2015/01/23	Kantagunea Baseliza Plentzia 19:00
2015/01/23	Yllanaren eskutik "The Ggfather" antzezlan a Kultur Leioa Leioa 20:30
2015/01/23	Punk, oil, reggae gaua Urrats taberna (Algorta) Getxo 22:00
2015/01/24	Tosuko neguko topaketa Tosu landa Getxo 15:00 - 23:00
2015/01/24	Facking Ez taldearen asanblada Kurtzio kultur etxea Sopela Batzarra k eta topaketak 18:00
2015/01/24	Fetén Fetén taldearen kontzertua 19:30 - 21:00 Andres Isasi musika eskola Getxo
2015/01/24	Impromptu taldearen kontzertua Josu Murueta kultur etxea Erandio 20:00
2015/01/25	Berbalagun familiarra Kiroldegia Gorliz 11:30
2015/01/25	"On, el funambulista" haur antzerkia 18:00 Andres Isasi musika eskola Getxo
2015/01/25	"Lego. La película" umeentzako filma Berango Antzokia Berango 18:00
2015/01/27	Irakurzaleen Kluba Josu Murueta kultur etxea Erandio 19:00
2015/01/27	Urtarrileko udal batzarra Sopelako udaletxea Sopela 19:30
2015/01/29	Telefonia antenak hizpide Goñi Portal kultur etxea Plentzia 19:00

Cantate 2000 obraren Europako estreinaldia egingo du Kantikak

XX. mendearen amaieran idatzi zuen Jackson Berkey Ipar Amerikako konpositore eta pianistak bere azken obra handia, eta New Yorkeko Carnegie Hallen estreinatu zen. Bertan, publikoaregan ikusmin handia sortu zuen.



Kantika korala Pekinen. LEIOAKO KONTSEBATORIOA

Urtarrilaren 24an, larunbata, *Cantate 2000* lanaren Europa-ko estreinaldi absolutua izango da Bilboko Euskalduna Jauregiko auditoriumean, 20:00etan. Hain zuzen ere, Basilio Astúlezek zuzendutako Leioa Kantika Koralak eta Margarita Lorenzo de Reizabalek gidatutako Leioako Orkestra Gazteak parte hartuko dute kontzertuan. Bada, Jackson Berkey Ipar Amerikako konpositore eta pianistak bere konposizioaren bertsio landuagoa idatzi du, haur eta gazteen abesbatza handi baterako egokituta, orkestra osoarekin, pianoarekin eta bi marimbarekin. Berkey bera Euskaldunan izango da. Sarrerak salgai daude jada 12 eurotan Euskalduna Jauregiko lehiatilan (astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara) edota Kutxabank-en kutxazainetan.

Kontzertuaren lehenengo zatian, Leioa Kantika Koralak iazko udan

Munduko Abesbatzen Seulgo X. sinposioan eta ondoren Shanghai, Qingdao, Zhengzhou, Wuhan eta Pekin hirietako antzoki nazionaletan interpretatu dituen obretako batzuk aurkeztuko ditu. Leioako Orkestra gazteak, bestetik, tinbre koloretsuko eta moldaketa ikusgarriko bilduma eskainiko du.

Jackson Berkeyren *Cantate 2000* lana soinudun kolorezko mosaiko bikaina da, orkestra-aberastasunak, marinen misterioak, pianoaren kemen adirazgarriak eta abesbatzaren indarrak osatuta, latinezko eta ingelesezko testuen gehigarri ezohikoarekin. Hirugarren milurtearen etorrerari begiratzen dio, orain dela 2.000 urte izandako Mesiasen jaiotza pozgarriaren atzera begirakoan. Imajinazioarentzako estimulua eskaintzen du, espirituarentzako aire freskoa, eta bihotzetik sortzen den kanta pozgarriaren inspirazioa da. ◀

Hilean behin batuko da Sopelako Irakurle Kluba

Saioak hilabetearen behin, gehienetan hirugarren egunetan, egiteko helburua jarri diote beraien buruei urtarrean sortutako Sopelako Irakurzaleen Klubeko kideek. Behin proposatutako liburua irakurrita, bakoitzak bere iritzia eta usteak amankomunean jartzea da ekimenaren asmoa.

Danele Sarriugarte idazle gazteak gidatutako dituen ekitaldi horiek eta aukeratutako obraren egilea ere eramaten saiatuko dira saiora. Hain

zuzen ere, Arantza Urretabizkaia donostiarraren *Zuri-beltzeko argazkiak* eleberria hautatu dute otsailean irakurtzeko eta hile horren 19an egongo da horretaz hausnartzeko aukera. Saio guztiak 19:00etatik 20:30era izango dira, Kurtzio kultur etxean. Parte-hartu gura dutenek ondoko telefono zenbakira dei dezakete: 688 654 770. "Sopelan literaturaz solasean" egitasmoaren haritik sortu zen irakurzaleen kluba eta urtarrilaren 17an aurkeztu zuen bere burua, Kurtzion. ◀



Atxaga izan zen Literaturaz Solaseaneko azken gonbidatua. ASIER MENTXAKA

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



LA LURREN
Hizketa

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA.
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko aldean)

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

gure izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

“Dantzaren bitartez jendeari poztasuna helaraztea lortu dugu”

Magali Moso
sopeloztarrak, Leire
Rada erandiogoikorrak
eta Amaia Sinobas
itzubaltzetarrak
lehiaketaren epaimahaiaren
saria irabazi zuten, EITBren
Gaztea irratiak egindako
Gaztea Dantzan lehiaketan

Aurkeztutako 80 koreografiatik epaileen gogokoena izan zen 19 eta 21 urte arteko hiru neskek egindako “Dangerous Love” dantza.

Nola piztu zitzaizuen dantzarako grina?
Leire Rada: Bai, txikitan hasi ginen... Musika gustatzen bazaizu, dantzatzea bakarrik dator.

Amaia Sinobas: Ni beste gauza batzuk probatzen ibili nintzen, futbola eta holakoak... Baina, azkenean, dantza aukeratu nuen.

Magali Moso: Ba, ni, bideoklipak ikusten hasi nintzen dantzan.

Ordutik daramazue elkarrekin?

A.S.: Hirurak batera bi urte daramatzagu. Baina, ni Leirerekin duela zazpi-zortzi urte hasi nintzen dantzan eta Magalirekin orain dela lau urte. Ondoren bateratu ginen.

Zelan erabaki zenuten Gaztea Dantzan lehiaketara aurkezte?

L.R.: Ba, lagun batek entzun zuen irratiari eta animatzeko esan zigun. Hori horrela, izena eman genuen.

Zaila egin zitzaizuen dantzaren koreografia asmatzea?

A.S.: Egia esan... ez asko.

L.R.: Aste batean edo egin genuen.



Magali Moso, Leire Rada eta Amaia Sinobas, lehiaketako irabazleak

A.S.: Baina, egia esan... Koreografia egitea baino, zailago egin zitzaigun entseatzea. Aste eta erdi hartu genuen

“Ekitaldi gehiago antolatu beharko lirateke dantzaren inguruan”

horretarako. Eta, horrela esanda, badi-rudi gutxi dela; baina, agian, bostpasei ordu ematen genituen egunero.

Epaimahaiak 80 talderen artean aukeratu zintuzten. Zelan hartu duzue?

A.S.: Bai. Sorpresa ederra hartu genuen. Gure ustez, saririk onena da, gainera. Profesional batzuk modu horretan baloratzea gure koreografia ikargarria da.

M.M.: Hala da. Jendeak Internet bidez emandako bozken bidez erabaki behar zen beste irabazleetako bat. Eta taldeetako batzuk dantza eskola osoak ziren. Hogei dantzari baino gehiago bazituzten, baikoitza bere senide eta lagunekin. Gu hiru baino ez ginen. Hartara, bozketan ez genuen lehian sartzeko aukera handirik. Hala ere, bosgarren geratu ginen bozketan. Itzela! Hori dela eta, ezkerak eman nahi diogu bozkatu gintuen jende guztiari.

Epaimahaiaren gogokoenak... Zertan oinarritu zuen bere erabakia?

M.M.: Gure koreografiaren bitartez, nahi genuena zen jendeari poztasuna, alaitasuna... transmititzea. Eta horixe bera nabarmendu zuen epaimahaiak bere erabakiaren berri eman zuenean. Poztasuna transmititzen genuela, alegia. Beraz, gure helburua guztiz bete genuen. Epaimahaiaren erabakia ja-

kitean asebetarik geratu ginen. Izena emandakoan geneukan heburua lortu dugu. Ez da makala!

Etorkizunean dantzan aritzeko asmorik bai? Edo zuen ikasketak horretara bideratu nahi dituzue?

M.M.: Nik, adibidez, dantza irakasten diet umeei. Baina hirurok ikasketetatik aparte egin dezakegun beste gauza bat bezala ikusten dugu.

A.S.: Ia ba. Profesional mailara heltzerik badaukagu... ederto.

L.R.: Baina, oso zaila da.

A.S.: Prestakuntza beharko dugu...

Dantzari behar bezalako garrantzia ematen zaiola uste duzue?

M.M.: Ekitaldi gehiago antolatu beharko lirateke dantzaren inguruan. Gaztea irratiak antolatutako lehiaketa oso egokia izan zen jendea animatzeko dantza egitera. Baina, ez da nahikoa. ◀

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.

Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria

eus

gure domeinua

“Holandan inori ez zitzaion futbola gustatzen Cruyff agertu zen arte”

Fredi Paia Ruiz bertsolari algortarrak pasa den abenduan jantzi zuen Bizkaiko txapela, Miribillan, lehian 14 urte emanda. Bertsolaritzaz, arteaz, kooperatibez eta euskarak behar duen lobbyaz mintzatu da Algortako Ajuria tabernan.



IÑIGO FDEZ. DE MARTIKORENA

Lehenengo eta behin, zorionak txapelagatik.
Eskerrik asko.

Zer sentitzen da 14 urteren ostean behin txapela bururatuta?

Lasaitasuna. Nik behintzat sentitu dut lasaitasuna, prozesu baten amaiera zela. Onarpen bat. Ez nekien helduko zen edo ez, hori ez dakizu inoiz. Jarraitzen duzu lantzen, lantzen, lantzen... eta aurten tokatu da txapela irabaztea, eta pozik! Barne kontu bat da, batez ere. Zeren gero materialik eta kanpotik ez duzu gauza handirik ekartzen. bertsolaritzan hainbat urte daramatzat, ez da orain bat-batean jendea enteratu dela bertsolaria naizenik. Alde horretatik ez dit bizitza asko aldatuko. Baina ondo dago errekonozimendu maila eta ondo etortzen zaio norberari.

Esan zenuen txapel hori garaipen kolektiboa zela.

Bai. Nire ustez bai. Edo hori sentitu nuen han bertan, finalaren egunean bertan. Ikusi nuen jendea asko poztan zela ni buruz-burukora pasatzerakoan; gero jendea: "Fred, Fredi!"; jada hirugarren finala jarraian hor animatzen nautena... hori da nire txapelik handiena. Hori da benetan zaila, bertsolari gutxik ez dakit inork lortu duen, nire moduan 2008ko finaletik hona finaleko momentu bat izatea jendea "Fred, Fredi!"... Nik hasieran pentsatzen nuen gauza hasten zela nire lagunengandik eta gero zabaltzen zela, baina final honetan eta jada aurrekoan konturatu nintzen ezetz, hasten zela leku ezberdinetatik, nire lagu-

nak, Algortako jendea leku batean bazegoen, oihuak hasten zirela beste leku batzuetatik... Orduan, neurri handi batean garaipen kolektibo bat da, zer hor bere egon da jende bat hamalau urte hauetan final guztietan joaten, eta tokatu da sufritzea, ospatzea baino gehiago. Zentzu horretan garaipen kolektibo bat da, eta zentzu gehiagotan be bai. Berrito ere inguru ez euskaldun bateko bertsolari bat; apur bat, bertso-eskolen bidez lan egin daitekeela, nahiz eta ingurunea erdalduna izan berriz mahai gainean jarri...

“ Bertsolaritzaren inguruan egin leikeen kritika moduko bat da lehiaren jokora bildu dela gazteria ”

Bere garaian, zu eskolan sartu eta gutxira Josu Esnaolak idatzi zuen erreportaje bat, "Basamortuko loreak".

Bai, hala da.

Zelan ikusten duzu garai hartako bertso-eskola, jada 25 urte daramatzazula hor? Zertan aldatu da gaur eguneko eskolarekin alderatuz gero?

Neurri batean aldaketa bat badago hor, Lopategi eto-

rri zenean abiatu zena, ni bertso-eskolan hasi nintze-nean, 9 urte gaz, batez ere asko garatzen zela alderdi ludikoa eta euskararekiko eta euskal kulturarekiko lotura, baina lehia arloari ez zitzaion horrelako garrantzirik ematen, edo ez zen prestakuntza berezirik egiten arlo horretarako. Eta ordutik aurrera bai eman diogula garrantzia arlo horri. Eta gainera, kontraesankorra eman lezake baina hor badago apur bat bertsolaritzaren inguruan egin daitekeen kritika moduko bat, gizarte honi egiten zaion kritika bat bere bai: lehiaren joko horretara bildu dela gazteria. Gazte asko erakartzen du lehiaren dinamika horrek.

Azken boladan esaten da bertsolaritzak hartu duela futbolaren traza, "hintxadak" eta.

Bai, hori alde batetik, eta hori ez zait txarto iruditzen, baina batez ere lehiarekiko dependentzia handia daukagu. Bertsolaritza azken finean da txapelketen bidez neurtzen den kultur adierazpen bat. Kirol parametroetan neurtzen dena. Hori niretzat arriskutsua da, baina egia da gazteak eta asko erakarri dituela horrek. Dudak dauzkat bertsolaritza kultur dinamika soil bat izango balitz, txapelketarik gabe eta kirol dinamika hori gabe, konpetibitate eta masa izaera hori barik... duda daukat gaur egon dagoen beste gazte egongo ote zen. Eta hori da ezberdintasunik nabarmenena igartzen dudana. Ni bertso-eskolan sartu nintzenean nire ostean gazteena Unai Eloorriaga zen, eta ni baino 9 urte zaharragoa zen. Gaur egun, arazo gehiago daude irakasleak topatzeko,





ASIER MENTXAKA

ditugun gazte talde guztientzat. Eta uste dut alderdi horretan, bertso-eskolak azkeneko 20 urte hauetan lehiarako egin duela perspektiba aldaketa hori, eta nik nire ikasleak lehiarako prestatu nituen eta ematen nituen klaseak.

Izatez, Jone Uria zure ikaslea izan da, fin dabil eta bere moduan beste batzuk ere ailegatu dira Bizkai-ko txapelketara, finalurrekoetara eta.

Bai, hor dago filosofia ezberdintasun bat. Berez gu gara bertsolari-eskola bakarra, Euskal Herrikoa. Hau da, bertso eskolak badaude baina gurea da bertsolari-eskola. Ematen du aldaketa lerroa dela baina ez, badauka bere garrantzia. Azkenean bertsolaritzaren irakaskuntzan Bertsozale elkarteak eta beste batzuek esaten dutenaren ikuspegitik garrantzia ematen diote batez ere zaletzeari, zaletu, zaleak sortu eta jendea disfrutatzearen paradigma hori garatzeari ematen zaio, baina gero aldi berean errealitateagaz inkoherentzia txiki bat bada, ze guztiz lehian oinarritutako sistema bat da bertsolaritza. Lehiak jerarkizatzen du, lehiari ematen zaio garrantzia, lehia da bisualizatzen dena, batez ere hartzen baduzu Bertsozale elkarte-ko orri-papera, hilabete honetakoa edo abendukoa azpimarratzen duena da 2015ean zeintzuk txapelketa egongo diren. Kultur mugimendu batentzako kurioa da lehiarekiko dependentzia hori. Eta guk bertsolari-eskolaren filosofia horretan hasieratik integratzen dugu hori, hau da, bertsolariak sortzearen kontua.

Gure ideologiaren barruan dago nik deitzen dudana "Cruyff efektua": Holandan inori ez zitzaion futbola gustatzen Cruyff agertu zen arte. Futbolari bat agertu behar izan zen jendea futbolzale egiteko. Uste dut Formula 1egaz Espainian gauza bera ikusi dugula eta azkenean herri honetan bertsolaritzaren garapena horrekin lotuta dago, bertsolariak daudela, eta bertsolari asko. Orduan bertsolariak sortu eta lehiarako eta hori da nire ustez aldaketarik handiena. Nire sasoian ez zegoen bertso eskolan Bizkaiko

“Egon da jende bat 14 urte hauetan final guztietan joaten; eta tokatu da sufritzea, ospatzea baino gehiago”

Txapelketako finaletan aritzen zen inor. gaur egun bai eta horrek uste dut potentziatu gaituela neurri handi batean.

Halere, ALBEk bitarteko guztiak bertsolaritza guztiak sustatzera dedikatzen ditu eta lehiatuko diren bertsolariak formatzera ezer ere ez.

Bai. Hori da dugun arazo bat finantziazioaren ikuspegitik, eta da apur bat politikariek kultura ulertze-

ko daukaten modua. Politikariei gustatzen zaie asko finantzatzea erakuslehoak. Hau da, zuk jada proiektua bukatuta daukazunean jendeari aurkezteko daukazun hori bai finantzatzen da eta interesatzen zaie ze bisualizatzen da, baina ez da hain erraza gurea bezalako kultur adierazpen batean ulertaraztea politikoei, benetan lan garrantzitsua ikustezina dela: martitzenero eta ostegunero egiten den lana, lan isila, eta era militante batean egiten duguna...

...eta urteetako lana.

Noski! Bertsolari bat... Berbarako, Jone Uria bere 9 urteagaz hasi zen; eta nik baino bederatzi gutxiago ditu, 24; eta bertsolari bat sortzeko hamar bat urte behar dira. Behintzat maila horretako bertsolari bat sortzeko eta prozesu horretan bagaude atzeratuta. Nire ustez etorkizunean bertso-eskolan, eta aspaldi esandako gauza bat da, bertso eskolan daukagun apustu bat da eta nire ustez Algortari dagokio Euskal Herri mailan iniziatiba hori hartzea eta pauso bat ematea, eta da bertsolaritzaren irakaskuntzaren sistematizazioa edo arautzea. Hori Koldo Iturberi [Getxoko Kultura zinegotzia] komentatzen nion orain dela urte batzuk: gu euskalgintza garela, baina euskalgintza izateaz gainera, arte eskola bat ginela. Beti esan dut bertsolaritza Alemaniako kontua izango baltz gaur egun bertsolaritzaren kontserbatorio moduko bat egongo zela, homologazio batekin, sistemaren aurrean edo gizartearen aurrean tituluak edukitzeko gaitasuna... Horrantza joan behar dugu. ◀



Erandio kirol elkarteak ehun urte

Erakusketa, ardo-dastaketa, futbol txapelketatxoa, material salmenta eta beste hainbat ekitaldi izango dira. Besteak beste, aurtengo Espainiako Liga amaitzen denerako, Erandio eta Athletic taldeen arteko partida agindu die talde zurigorriak

Orain dela ehun urte, 1915ean, sortu zen egun Bizkaiko Ohorezko Mailan dabilen Erandio Club kirol elkarte. Gauzak horrela, hasi dira jada urteurrena ospatzen. Besteak beste, erakusketa jarri dute Altagako Obieta kaleko 8. zenbakiko Ipar Kutxa zenekoan. Urtarrilaren 31ra arte egongo da zabalik, astelehenetik barikura, ondoko ordutegian: goizez, 11:00etatik 13:00etara; eta arratsalde, 18:00etatik 20:00etara. Txetxu Aurrekoetxea Ategorri taldeko mendeurrenaren eta komunikazioaren aldeko batzordeko kideak azaldu duenez, hilero-hilero doaz ekitaldiak plangintzatzen, egutegi zehatzik gabe. Besteak beste, aurtengo Espainiako Liga amaitzen denerako, Erandio eta Athletic taldeen arteko partida agindu die talde zurigorriak, “gura dugunean”.

Bi futbol taldeetako beteranoek ere norgehiagoka jokatuko dute maiatzean. Eta apirilerako Athletic, Txorierri eta Danok Bat klubuen arteko txapelketatxoa prestatzen dabilta. Baina, bestelako ekitaldiak ere egongo dira: orain salgai dituzten ardoen dastaketa, jardueraz beteriko eguna San Agustin jaietan, material salmenta... “Egiteko lan asko dagoen arren, pozez gainezka daude zaleak urteurrenarekin. Gero eta jende gehiago gerturatzen da Ategorrira”, adierazi du Aurrekoetxeak. Liburua editatzen ere badabilta. “Baikorrenek maiatzeko diote, baina seguruenik *sanagustinetan* kaleratu eta salduko dugu”, aipatu du erandioztarrak.

Urteetan atzera eginez, 50eko hamarkadara arte “Matxakeo”-n, ontziolen aurrean, jokatu zuen Erandio futbol taldeak. Bertan, harriak txiki-

tzen zituzten. Ategorri 1967an eraiki eta, besteak beste, bertan zen Txetxu Aurrekoetxea. Urrezko ezteiak ospatu zituztenean direktiboa zen. Orain, Udalari laga nahi diote Ategorri, toki-

Udalari utzi gura diote Ategorri futbol zelaia berak kudea dezan

ko erakundeak azpiegiturak eta zerbitzuak hobe ditzan, Aurrekoetxeak aitortu duenez. “Auzokideen mesederako izango litzateke” aipatu duenez.

Bigarren mailan

Erandio Klub Kirol Elkarte Erandio-ko futbol taldea da. 1915ean sortua, egun Bizkaiko Ohorezko mailan dabil baina bi aldiz Espainiako futbol

ligako bigarren mailan aritu zen. Zuri-urdinen urrezko aroa 30eko eta 40ko hamarkadak eta 50eko hamarkadaren hasiera izan zen. 1932an Afizionatuen Espainiako txapelketako finala jokatu eta galdu egin zuen, baina hurrengo urtean txapelduna izan zen. Gerra Zibilaren ondoren, 1939-40 denboraldian, Bigarren Mailan jokatu zuen eta seigarren izan arren, jaitsi zen mailaren berrantolaketa handi bat egin baitzen. 1949an berriz igo zen baina 14. gelditu eta maila galdu zuen. Gero, urte asko eman zituen Hirugarren Mailan, 1981ean Bigarren B Mailara igo arte. 1982an lorturiko 7. postua izan zen onena, hurrengo urteetan ez baitzuen hau hobetzerik lortu. 1985ean maila galdu zuen. Ordutik lau urte baino ez ditu egin hirugarren mailan eta Bizkaiko Ohorezko mailako ohiko taldea izan da. ◀

Kantxa
kirol moda
URIBE KOSTAKO KIROL DENDA



Torre 4
ALGORTAKO AZOKA

TF. 94 491 18 82
info@kantxa.eu
www.kantxa.eu



Madrilera lidergo bila

Zapatu honetan, hilak 24, Faturatik kanpo jokatuko dute berriro Getxo Artea errugbi taldeko emakumeek. Joan den asteburuan XV Sanse Scrum taldea 5-32 mendean hartu ostean, bigarren jarri ziren hori-beltzak. Asteburu honetan Madrilen bueltan izango dira getxoztarrak, 5 puntuak sakelean sartu eta lehenengo postua eskuratzeko asmoz. Oraingo honetan, Majadahonda taldea mendean hartu beharko dute, 16:00etatik aurrera. Bi jardunaldi baino ez dituzte izan Espainiako Ligako Emakumezkoen Ohorezko Mailako taldeek. Egun, G.E.I.E.G. katalanak daude sailkapenaren buru eta bi puntura dago Getxo Artea. ◀

Bizkaitar derbia zapatuan

Giro handiko partida jokatu-ko du Leioak zapatu hone-tan, arrastiko 18:00etatik aurrera; horrenbestez, Bil-bao Athleticen aurkako Bizkaiko der-bi bera hartuko du Leioako Sarriena futbol-zelaiak. Horretaz jakitun, kirol taldeak Klubaren Egun Erdia izenda-tu du data hori, horrek dakarrenare-kin. Bigarren B mailako norgehiago-ka ikusteko bazkideek eta abonatu-ek 7 euro ordaindu beharko dute. Kirol

mailan, berri, bi taldeen arteko alde
bi puntukoa besterik ez da, nahiz eta
Leioak 10. postua izan eta bilbotarrek
seigarrena. David Movillaren gizonak,
baina, zail izango dute ahaztea pasa
den irailean lehoi-kumek eman zie-
ten jipoia, Lezaman 5 eta 1 jaso zutela,
hamaikako ofizialean hainbat bajare-
kin jokaturako partidari. Halere, mai-
lan gelditzeko helburua eskuratzeko
hiru puntuak oso lagungarriak izango
direlakoan badaude aldagelan. ◀



© I FIOA K.T.

[illegible]



Urtzi Iglesias. © GETXOKO UDALA

Getxo sasoi sasoian

Urtzi Iglesias Mota

lasterkariak jaso du kirolarien garaikurrik nagusia, Getxo Sasoi Sasoian kirol sarien galan

Hilaren 12an batu zuen erreko-nozimendu hori Iglesiasek iaz egindako lan bikaina esker-tzeko. Urtzi Iglesias abentura eta orientazio lasterketetan murgiltzen da eta Euskal Filologian lizentziatua eta Haur Hezkuntzan diplomaduna da. Garaipen-zerrenda zabala dauka kirolean, lorpen ugariarekin, estatuan zein nazioartean. 2014an lehen postua eskuratu zuen Untamed New England (EEBB) Mundu Ligako proban, 2. Munduko Abentura Lasterketen Txapelketan (Ekuador) eta hainbat lehen postu raid desberdinetan. Lorpen horiei esker lortu du Getxoko iazko kirolari onenaren saria. Pozik agertu zen korrikalaria, baina horraino heltzeko egindako lana ere aldarrikatu zuen: “urte batzuk daramatzat mundu mailako lehiaketetan. Eta uste dut, iazkoagatik baino, urte hauengatik guztiengatik eman didatela saria”, aipatu zuen saria jasotakoan.

Iglesias oso ezaguna ez den kirolaren pedagogia egitea ere egokitu zitzaion: “Muturreko kirola da egiten dudana, egun batzuk irauten duten lasterketak eginez, kirol oso fisikoa eta mentala, non zenbait diziplina menderatu behar diren. Oso zaila da bi urte-

tan jarraian podiora igotzea eta nire taldeak eta nik lortu dugu. Oraindik Munduko Txapelketa geratzen zaigu, talde gaztea gara, oraindik ere asko hobetu dezakeena eta horretan dihardugu, ahalegin betean”, azaldu zuen.

Bederatzi kirol-kazetari getxoztarrek osatu zuten Iglesiasi saria egokitu zion epaimahaia. Atzean lotu ziren Ane Ibarrondo igerilaria, Jon Zabala errugbi jokalaria eta Olatz Etxebarria judolaria. Horiek guztiek Getxoko kirolaren esker ona jaso zuten, banan-banan.

Iglesias emandakoaz gainera, Getxo Sasoi Sasoian zenbait sari eman zituzten, taldekakoak zein bereziak. Izan ere, taldeka, “Getxo Kirol Berriak” saria eman zieten Getxoko Aixerrota BKT boleibol taldeari, emakumezkoen kategorian, bere kirol ibilbideagatik. Besteak beste, Espainiako txapeldu-

Uste dut iazkoagatik baino, urte hauengatik guztiengatik eman didatela saria

nordea izan da haur mailan eta Euskadiko txapelduna haur eta kadete mailatan, eta Espainiako eta Euskadiko txapelduna, haur eta kadeteetan, hurrenez hurren, azken biak hondartza-boleian. Eta mutilen kategorian, Getxo Igeriketak jaso zuen saria, Espainiako haur txapelketan, 4x200ekoan, lortutako zilarrezko dominagatik. Aurreko

denboraldietan eskuratutakoei beste bat gehitu beharrekoa.

“Getxo Kirol Sariak”, emakumeen atalean, Getxo Errugbia Taldearentzat izan zen, bosgarrenak Ohorezko Mailan eta Euskal Ligako txapeldunak baitira, senior mailan. Eta gizonezkoetan, Getxo Saskibalo Taldearentzat, maila igoeragatik.

Bestalde, sari bereziak honako kirolari eta talde hauentzat izan dira: aurtan berria den aitortpena, “Berdintasuna Indartuz”, emakumezkoen kirolaren sustapengatik eman den saria, Getxoko Euskal Pilota Taldearentzat. “Aitzindaria”, mitoarena, Manolo Delgado Meco Athletic Clubeko prestatzaile ohi eta 1972az geroztik Futbol Entrenatzaileen Eskola Nazionaleko irakasle denarentzat izan zen. “Kiroltasuna”, kirol ibilbidea saritzen duena, Roberto Brunet Punta Galea Txirrindulari Elkarteko kide eta Getxoko Nazioarteko Zirkuituaren antolakuntzako arduradunak jaso zuen. “Getxo Berrituz”, kirolaren berrikuntza saritzen duena, Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarteari eman zitzaion, klubaren gestio eta profesionalizazteagatik.

“Marka Hautsiz” Estibaliz Landaburu igerilariarentzat izan zen, aurtan lortutako emaitza bikainengatik. Eta, azkenik, “Getxo Zabala” saria, altruismoarena, Artea Merkatataritza-guneak jaso zuen, Getxo Errugbiaren eta Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkartearen estropaden babesle izateagatik. ◀

Jon Rahm-ek Phoenix-eko golf saria jokatu du




© ARIZONA ESTATUKO UNIBERTSITATEA

Golf jokalaria barrikoztarrak Waste Management Phoenix Open golf saria jokatzeko gonbidapena jaso du, Danny Calihan ekimeneko arduradunak iragarri duenez. Phoenixeko sariketa PGA Tourreko denboraldiaren esanguratsuenetariko bat da. Jokalari amateur Mayakoba Golf Classic proba estatubatuarrean estreinatu zen. Gauzak horrela, Rahmek bat egingo du Tiger Woods jokalaria famatuagaz Arizonako hiriburuan. Lehiaketa urtarrilaren 26a eta otsailaren 1a bitartean jokatu da. Barrikakoa Norbanakoen Munduko Txapelduna bilakatu zen iaz, Jack Nicklaus jokalaria handiak zuen kolpeen marka gaindituta. Era berean, pasa den urrian Bill Cullum Invitational saria irabazi zuen, inoizko errekor guztiak hautsiz. Azkenik, hilabete honetan Warrior Princeville Makai Invitational lehiaketan bost onenen artean sailkatu zen. Egun, Arizonako Estatu Unibertsitatean ikasten du Rahmek. ◀

Itxarturen krosa domekan, hilaren 25ean

Urtarrilaren 25ean XXIX. Itxartu taldearen krosa egingo da Algortako erdialdean. Adin guztietako mila parte-hartzailetik gora biltzea espero da, Itxartuko kideen arabera. Txikien lasterketa 11:00etan abiatuko da eta 12:30ean seniorrena; Batzoki aurrean egongo dira irteera eta helmuga. Izen-ematea doan da parte-hartzaile guztientzat eta ostiraleko 24:00ak arte egin ahal izango da www.itxartu.com webgunean. Aurretik, ostegunera arte Faturako kiroldegian, Kantxa Kirol Modan edo Gaztañaga Kirolak dendan ere izena eman daiteke; lasterketaren egun berean ere, proba bakoitzaren hasiera baino ordu erdi bat lehenago. Aurreko urteetan bezala, jendearen parte-hartzea handitzeko asmoz, udalerriko lasterkarien artean 7 sari herrikoi zozketatuko dituzte. ◀

Hitz gurutzatuak





Ezker eskuin: 1. Baliabide. 10. Ikasi aditzaren izena. 11. Aleak sakatzuz birrindu edo haustu. 12. Gantz, urin, olio. 13. Lixiba. 14. Zati bi. 15. Asko. 16. Gipuzkoako Tolosaldeko hiriburuko. 19. Zuhurtziaz jarduten duena. 21. Arku. 23. Azerbaijan Errepublikako hiriburua, Kaspiar itsasoaren ertzean. 25. Toka, noa. 26. Gurrupilik gabeko orgak. 27. Musu. 28. Gizon izena. 29. Ur gezako arraina, sukaldaritzan oso preziatua.



Goitik behera: 1. Gai beltzaxka, oso likatsu. 2. ... izan, bat etorri, ados egon. 3. Iraindu, laido egin. 4. Argia islatzen eta objektuen irudia itzultzen duten gainazalak. 5. Sarrera nahiz irteera. 6. Suari dario. 7. Erabat gardena ez den gorputz batean zehar iragaten den argi. 8. Garbia ez denaz esan ohi da. 9. Nafarroako aireportua. 13. Egarrri dagoenaz esaten da. 15. Ipar Euskal Herrian, askotan. 17. Aditzari dagokion ekintza maiz gertatzen delako zentzua ezartzen dion partikula. 18. Pilotaren botea. 20. Kapar, parte gaiztoko intsektu. 22. Irudiaren neurria etengabe aldatu ahal izateko erabiltzen den lente sistema. 24. Ezezkoa. 26. Pinu mota. 28. Estrontzioaren ikur kimikoa.

Sudoku irudidunak

Sudoku hauetan irudiek hartu dute zenbakien lekua. Gogoan har ezazu irudi guztiek azaldu behar dutela zutabe, lerro eta azpilauki bakoitzean.



Soluzioak



Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra

Deitu eta informa zaitez:
Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



hiruka zabal-zabalik!



IKER RINCON

Fenix hegaztia legez, UK aldizkariaren eta Ukberri.net agerkari digitalaren hautsetatik hiru komunikazio-euskarritan oinarritutako proiektu berriagaz suspertu gara, tartean, eskuartean duzun hori


Ia hilabete luzez eskualdean tokiko euskarazko komunikazioa umezurtz egon ostean, HIRUKA komunikazio-taldea jaio da! Jakingo duzunez, UK aldizkariak eta Ukberri.net agerkari digitalak euskalgintzako eragile esanguratsuenakaz bat egin zuten, denon indarrak batuz, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-talde berria sortzeko. Eskuartean duzun HIRUKAren lehenengo zenbakia hau, www.hiruka.eus atari digitalagaz batera, bide luze eta gogor baten emaitza dira, eta dagoeneko prest eta gogotsu gaude ibilbide berriari ekiteko.

HIRUKAk hiru euskarri izango ditu: atari digitala, paperezko astekaria eta irratia. Ikusiko duzunez, lehenengo biak kalean zein sarean daude eskuragarri jada, baina irratia entzun ahal izateko hilabete batzuk itxaron beharko dugu. Ohartuko zarenez, aldizkariak jauzi nabarmena eman du koloretan eta «egunkari» formatuan inprimatuta. Gainera, hamabostekaria izatetik astekaria izatera salto egin dugu.

HIRUKA uribekostarrei zuzendutako euskarazko komunikazio-tresna integral, sendo, indartsu, multimedia eta kalitatezkoa eskainiko duen tresna da. Gertutasuna eta gizarteratzea oinarri, herritar, elkarte, erakunde zein merkatarien komunikazio-beharrak asetzeko tresnak eskainiko ditu, tokikoa eta hurbila. ◀



► Hiru komunikazio-euskarri




Eskuartean dituzun orriotan herrietako, kulturako eta kiroltako hainbat albiste irakurtzeko aukera izan duzu, eta horietako askotan hiru laukitxo aurkitu dituzu. Baina, zer dira ikono horiek?


Ikono bakoitzak HIRUKA komunikazio-taldeak hartzen dituen euskarri bana adierazten du:



Astekaria:
eguenetan eta barikuetan banatuko da.



Atari digitala:
www.hiruka.eus
helbidean, 24 orduz albisteak



Iratia:
Uribe Kostarako euskara hutsezko irratia bakarra.

Informazioa euskarri batean baino gehiagotan landuko da askotan, eta ikonoek irakurleari jakinaraziko diote informazio zein euskarritan topa dezakeen. Hala, artikuluen ondoan belztuta agertzen diren ikonoek hori adieraziko dute.


► Sar zaitez komunitatean!

Hiru komunikazio-euskarri hauen bitartez, gainera, elkarteen eta norbanakoen parte-hartzea bultzatu gura du HIRUKAk. Hala, atari digitaleko komunitatea izeneko atalean, edonork aukera izango du ekimenak, artikulua, argazkiak zein iritziak plazaratzeko, besteak beste. Baina, nola egin komunitateko kide?

1 Sar zaitez www.hiruka.eus webgunean.



2 «Sartu» botoiari sakatu izen-emate orrira joateko.



3 Bertan, hiru aukera izango ditugu izena emateko:



Facebook/Twitter bidez:

Horrela erregistratzea errazagoa da. Facebook edo Twitter kontuagaz sartu nahi duzula aukeratu eta, «Saioa hasi» aukeratu ostean, zuzenean kide izango gara.

Posta bidez:

- «Erabiltzaile berria naiz eta izena eman nahi dut» botoiari sakatu
- Erabiltzaile izena aukeratu eta gure e-posta kontua sartu beharko dugu, norberak nahi duen pasahitzagaz. Adi! Ez du zertan emailaren berdina izan behar.
- Erabiltzaile izena eta pasahitza sartu eta komunitateko kide izango gara.

Komunitateko edukiak sortu



Behin komunitateko kideak garela, «Sartu» botoia zegoen tokian gure argazkia ikusiko dugu.



Gure argazkiari sakatu eta «Gehitu edukia» botoia sakatu eta edukiak sartzeko orrialdera eramango gaitu.



Hainbat eduki sortu ahal izango ditugu: iruzkinak, argazkiak, argazki galeriak, bideoak, artikulua eta hitzorduak.



Komunitatera igotzen ditugun hitzordu guztiak automatikoki Agendan agertuko dira.

► Proiektuko partaide izan nahi?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan zuzenean eta barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez: laguntzaile soila, Hiruka Laguna izanda.

Bazkide Erabiltzaile izanda:

- Kooperatibako Batzar Nagusiko partaide izatea.
- Errektore Kontseiluaren kide izateko aukera.
- HIRUKA produktuetan beherapenak.

Pertsona Juridikoak: 1.000 € + Urteko kuota: 30 €

Norbanakoak: 100 € + Urteko kuota: 30 €

Bazkide Laguntzaile izanda:

- Kooperatibako Batzar Nagusiko partaide izatea.
- Errektore Kontseiluaren kide izateko aukera.
- HIRUKAk egindako eskaintzez baliatzea, doan ala prezio murriztagoan.

Pertsona Juridikoak: 200 € + Urteko kuota : 33 €

Norbanakoak: 50 € + Urteko kuota : 33 €

Instituzioak: 2.000 € + Urteko kuota : 33 €

Hiruka laguna

Urtero ekarpen bat eginez (gutxienez 35 €) astekari berritua modu berezian jasoko duzu, eta beste hainbat onurez baliatzeko aukerak ematen ditu.

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO

☐ Bazkide Erabiltzaile
☐ Bazkide Laguntzaile

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____€

Izena NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea Telefonoa

E-posta

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek hirukari emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, hirukak sortua eta bere erantzukizunaren arabera kudeatua. Fitxategi honen helburu nagusia erabiltzailearekin harremanetan jartzea eta hirukaren informazioa eta publikatzea helaraztea da. Aipaturako datu pertsonalen bestelako erabilpenik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: info@hiruka.info Erabiltzaileen datu pertsonalak ondo babestuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera. Neurri egokiak hartuko dira gal ez daitezkeen edota hirugarrenen batek eskura ez ditzan eta hasieran eskatutako helburuak ez diren beste batzuetarako erabili ez ditzan.



Lehen/Orain Arriluze



Erretratua

Josemari Unzueta/Begoña Zorrozueta

Bolibartarrak

Erresumaren bandera gorria soinean, Euskal Herriaren nafartasuna zabaldu ohi dute lau haizetara, Algortan zein beste edonon



Nafarroako bandera aldean “oso gauza bitxiak” gertatu izan zaizkiela aitortzen dute Josemari Unzueta eta Begoña Zorrozuak. “Askotan entzun behar izan ditugu ‘Espainola ez, ikurrina bai!’ eta horrelakoak. Askok pentsatzen dute ikurrinaren aurka goazela eta ez da hori”, dio orain 28 urte Azkoitiatik Algortara heldutako bikoteak. Beraiek argi daukate, “Nafarroa murrizta” aldarrikatzen duten horien aldean. Josemari eta Begoñarentzat “berreraikitzeke” daukagun Nafarroako Estatuaren ikurra da katedun bandera gorria; “ez politagoa, ez itsusiagoa”.

Biei ulerkor egiten zaie inertzia hori aldatzeko denbora beharko dela. Baina ez dute ezinezkotzat jotzen. Eskualdera heldu zirenean ere arrotz egiten zitzairen senar-emazteari, Azkoitian ez bezala, Algortan, alabak gozoki dendara zihoazela edo eskolaz kanpoko jardueretan euskaraz aritzeko zailtasunak topatzea. Diotenez, “keinuka

ibili behar izaten zuten alabak. Orain normaltasunez aritzen gara gure hizkuntzan”.

Euren nafarzaletasuna Simon Bolibarren ideologia askatzailearekin jantzi dute Josemarik eta Begok. Izan ere, bere ustez, “herriak prestatu egin behar du”. Bien hitzetan, historia ba-

“ Denbora beharko du herriak Nafarroako Estatuaren izaeraz jabetzeko ”

karrik ez, osagarri guztiak (zientzia, teknologia...) hartu behar dira eta jendeari pentsarazi “benetan zer garen”. Euskal jatorriko Latinoamerikako askatzailearen esaldi ezagunetako bat darabilte ahoan: “Egin dezagun leikeena ezin leikeena”. Horixe bera adierazi nahi dute Josemarik eta Begok plazara irteten direnean. ◀

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoen 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena, Irantzu Sagaminaga

Argazkiak: Asier Mentxaka

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Sustapena: Erika Martinez eta Zortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: eskatua

Erakunde laguntzaileak:



Komunikabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso ditu